

# TxikiKlubo

2014ko urria

146 zbk.

GAIZKA GARITANO  
**Primerako  
gidaria**



txistek bitxikeriak sukaldea denbopasak eskulanak



### Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte  
Urkizu, 11 - solairuarte. 20600 Eibar  
Tel: 943 206776.

### Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Mainer Aranberri,  
Ana Aizpurua eta Eibarko  
ikastetxeetako ordezkariak.

### Administrazioa

Marisol Uriarte.

### Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Mainer Aranberri  
eta Ana Aizpurua.

### Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa.

### Copyright-a

Txikitto!

### Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak  
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak  
diruz lagundutako argitalpena




KULTURA SAILA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

# Txikis teak



Zer esaten dio zero batek beste zero bati?  
Ez gara ezer!

**MOHAMED ACHRAF**



Patxik esan zuen harro-harro:

- Nire semeak izugarrizko indarra dauka, bost urterekin  
hamar kilo jasotzen ditu.

Eta lagun batek erantzun zion:

- Gure semeak bost hilabete besterik ez dauka, eta etxeko  
denak jaikita edukitzen ditu gau osoan.

**ENEKO LAPAZARAN**



Zero-etxean gizon bat eta emakume bat berriketan ari dira:

- Julio Zesar naiz. Ezkonduko zara nirekin?

- Barkatu baina ezin dut...

- Zergatik, bada?

- Napoleonen emaztea naizelako.

**MARKEL MARTINEZ**



Bi ume tripako minez daude eta medikuak zapore txarreko  
xarabea eman die, eta esan diote amari:

- Xarabea aitxixak ematea nahi dugu!

- Zergatik?

- Aitxixaren eskuek dar-dar egiten dute eta xarabe erdia  
jausiko delako.

**AINHOA AGIRRE**



- Ama, ama, termometroa jaitsi da!

- Zenbat jaitsi da, seme?

- Erabat, ama, lurrera erori da-eta.

**ARIANE CABERO**



Emakume bat haragidenda batean sartzen da eta saltzaileari  
esaten dio:

- Emaidazu txerri-buru hori, mesedez.

Eta dendariak:

- Barkatu, baina hori ispilu bat da.

**IKER ANDRES**



- ★ - Etxeko andrea etxean al dago?
- Ez, kanpoan dago.
- Eta asko tardatuko du?
- Ez dakit, oraintxe galdetuko diot.

**LEIRE ARGOITIA**

- ★ Ikasle berri bat eskolara doa eta esaten du:
  - Nire izena Luzea da.
- Eta beste ikasle batek:
  - Lasai, denbora daukagu-eta.

**NAGORE HERRERO**

- ★ Ezkontza batean haur batek honela galdetu dio amari:
  - Ama, emaztegaia zergatik doa zuriz jantzita?
  - Bere bizitzako egunik zoriontsuena delako, seme.
  - Eta orduan, senargaia zergatik doa beltzez jantzita?

**NAROA HERNANDEZ**

- ★ Patxi ospitalean dago eta lagun bat joan zaio bisitan:
  - Operatu nautenean esponja bat laga didate barruan.
  - Eta? Min handia ematen dizu?
  - Minik ez, egarria ematen dit.

**SAUL VALDES**

- ★ Bi zoro hizketan daude:
  - Ihes egiteko plan bat egin behar dugu.
  - Hesira oso altua bada, azpitik egingo duzu zulo bat, eta baxua bada, gainetik egingo dugu salto.

Hesira hurbildu eta biek batera esaten dute:

- Ene! Ez dago hesirik, ezin gara pasatu!

**RUBEN GALLEGO**



- ★ Jaietako barraketan, negar batean dago umetxo. Udaltzaina joan zaio eta galdetu dio:

- Zer gertatzen zaizu, txiki? Galdu egin zara, ala?
- Ez, jauna, ez. Aita da galdu dena.

**AYMAN MALEK**

- ★ Jai batean andreak haserre egin dio gizonari:

- Laugarren aldiz hartu duzu tarta izozkiarekin. Ez zara lotsatzen ala?
- Lotsatu? Zer dela eta? Zuretzat dela esan diet beti.

**IRAIA GUTIERREZ**

# Denborapasak


## HIZKI-ZOPA

### EIBARKO FUTBOLTALDEA

A	D	I	E	G	O	R	I	V	A	S	B	Z	U	S	Z	B	U	S	R	E	O
S	C	L	U	S	T	L	E	U	B	Z	O	S	U	L	S	T	O	S	R	U	A
A	B	G	A	I	Z	K	A	G	A	R	I	T	A	N	Q	A	R	A	B	C	
T	B	O	M	Z	T	L	A	L	B	S	E	B	E	L	C	B	P	U	L	A	U
E	L	V	A	Z	A	I	I	Z	T	A	D	T	S	R	U	B	S	R	A	L	B
R	E	B	L	O	X	A	N	S	S	A	O	Z	A	S	A	R	S	T	U	B	E
U	T	S	E	B	E	O	A	U	A	L	G	L	J	U	L	A	O	B	O	R	
R	S	N	O	I	T	I	S	D	A	N	I	G	A	R	C	I	A	O	V	L	O
I	O	R	E	U	L	A	E	T	B	A	R	R	U	A	B	A	R	R	E	N	
B	I	R	U	R	E	T	O	S	A	R	A	U	A	B	A	R	R	E	N	I	A
E	R	R	A	S	T	O	S	D	A	N	I	G	A	R	C	I	A	V	A	L	D

- o Albertosa
- o Diego Rivas
- o Boveda
- o Errasti
- o Irureta
- o Arruabarrena
- o Gaizka Garitano
- o Dani Garcia

## ZAZPI EZBERDINTASUNAK






# Lehiaketa

Kaixo lagunok!

Ikusiko duzuen moduan, aurten, Txikitto! berritasunez beteta dator. Berritasunen artean hemengo lehiaketa hau duzue. Aurkitu itzazue 6 desberdintasunak eta behin hori eginda ekarri erantzuna ... eta kitto! Euskara Elkartera (Urkizu 11, solairuartea), urriaren 31 baino lehen. Liburu polita zozketatuko dugu.

Ez ahaztu datuak jartzea (izen-abizenak eta telefonoa).




**BIDALI ERANTZUNA HURRENGO HELBIDERA:  
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA. Urkizu 11. Eibar**

Izen-abizena .....

Adina .....Tel.....

# Denborapasak



ORAIN ZURE TXAUDA  
DA, BAI ZUREA, MARGOLATZ  
BIKATUA ZARA ETA.  
NAHI DUZUN MODUAN  
MARGOTU NIRE GAINEKO  
MARRAZKIA.



## Barixakuak Jolasian, eta euskeraz!

Gurasoak Berbetan programa ... eta kitto! Euskara Elkartek antolatzen du, gurasoek euskera praktikatzeko aukera izan dezaten.



Gauza jakina da hizkuntza bat erabiltzen ez bada galdu egiten dela, eta gauza bera gertatzen zaio euskerari ere. Jakin bai baina ez badugu erabiltzen? Galdu egiten dugu, eta zenbat eta gutxiago jakin, orduan eta gutxiago erabiliko dugu.

Gurasoak Berbetan-ek gurasoak **euren artean euskeraz berba egiteko** balio du, baina zuek, ume eta gazteok, zuen gurasoekin ere euskeraz berba egitea oso garrantzitsua da, nahiz eta gutxi jakin, ez dio inporta, egin!



Programa horren barruan dago **Barixakuak Jolasian** ekimena. Hilabeteko barixaku batean jokoak, tailerrak... antolatzen dira ... eta kitto!-n, Gurasoak Berbetan-eko guraso eta seme-alabentzat. Orain arte denetarik egin dugu, **mozorro-tailerra, sukaldaritz-tailerra, umeen kantu eta jolasen tailerra, jolasak...** Eta urtean behin guztiok batera elkartu eta elkarrekin bazkaldu eta pasatzen dugu eguna.

Zuek animatu etxeakoak euskeraz berba egitera, baina kontuan izan, Gurasoak Berbetan programan egon edo ez egon, garrantzitsuena euskera erabiltzea dela!





IZENA

**Gaizka**

ABIZENA

**Garitano**

JAIOTERRIA

**Derio**

JAIOTEGUNA

**Uztailak 9**

**Itsasoa ala mendia?**

Itsasoa

**Gozoa ala gazia?**

Gozoa

**Uda ala negua?**

Negua

**Jatekorik gustokoena?**

Gazta

**Irakurri duzun azken liburua?**

“La ladrona de libros”, Marcus Zusak-ena

**Umetan zein ikasgai gustatzen zitzaizun gehien? Eta gutxien?**

Gehien latina eta grekoa, gutxien matematika

**Kolore bat?**

Berdea

**Gorria ala urdina?**

Biak

**Kirolik gustokoena?**

Futbola eta saskibaloia

**Animaliarik baduzu etxean?**

Ez

**Txisteak kontatu ala entzun?**

Ez bata ez bestea

**Birziklatzen duzu?**

Gutxi

**Telebistako saio bat?**

Hitzetik hortzera

**Pelikula bat?**

“Cadena perpetua”

**Egun perfektua?**

Familia eta lagunekin nagoenean

**Nola dago mundua?**

Gaizki

**Zerk haserretzen zaitu?**

Ez zait jende alferra gustatzen

**Zerk poztu?**

Alabak ikustea

**Oporretarako leku bat?**

Menorka

**Futbol-jokalaririk gustokoena?**

Eibarko edozein

**Entrenatzaile gustokoena?**

Guardiola eta Simeone



**Futboleant jokatuta ala entrenatzaile izan? Zer nahiago?**

Biak, bakoitza bere momentuan

**Definitu Eibarko zaletuak**

Legalak, errespetua transmititzen dute, fidelak

**Definitu Eibar Futbol Taldea**

Lagun talde bat

**Zer egin euskera bultzatzeko?**

Dakigunok egin eta ez dakitenek ikasi (batez ere lehenengoa)

**Opariak jaso ala egin?**

Ez bata ez bestea

**Gogoan duzun unerik pozgarriena?**

Bi igoerak

**Abesti gustokoena?**

“Negua joan da”, Zea Mays

**GAIZKA**

**GARITANO**

Gaizka Garitanok hainbat taldetan jardun du jokalaria moduan: Athletic-eko harrobian hasi eta Eibar, Real Sociedad eta Alaves taldeetan jokatuta zuen. 2009an utzi zion futbolaritza. 2010ean hasi zen entrenatzaile moduan, Eibar B taldean, eta handik bi urtera Eibarko lehen taldearen gidaritza hartu zuen, gorri-urdinak Bigarren A mailara igoz. Iazko denboraldian Lehen Mailara igotzea lortu zuen.





**SAN ANDRES** ikastetxeko 3. ziklokoak kurtsoa ondo hasteko Orioko barnetegira joan dira eta surf egiteko aprobetxatu dute. Oso ondo pasatu dute.

Kaixo lagunak!  
Oporretatik pilak kargatuta ditugula berriz ere martxa hartzen ari gara **LA SALLEN**.

Irailaren 17an 1go ziklokoak San Pedrora joan ziren egun pasa. Arratetik oinez joan ziren eta 4km-ko ibilbidea egin ondoren, bertan bazkaldu eta arratsalde osoa jolasean eman zuten.

22an, 3. ziklokoak Arratera oinez igo ziren eta leher eginda bukatu zuten.

24an, 2. ziklokoak Donostiako zinemaldira joan ziren eta Japoniako irla batean gertatuta istorio baten marrazki bizidunak ikusi zituzten. Amaitzerakoan, autobusaren zain zeunden bitartean, denbora izan zuten bertatik paseoa ibiltzeko.



Irailaren 8an, **URKIZU** eskolako ikasle eta irakasleek, hasiera eman genion ikasturte berriari. Irailaren 19an, lehen hezkuntzako ikasle eta irakasle guztiak Arratera joan ginen, eta primeran pasatu genuen.

Urriaren 14an, haur hezkuntzako 4 eta 5 urteko ikasleak Coliseo zinemara joango dira "Lotte" pelikula ikustera.



**ARRATEKO ANDRA MARIKO** 3. eta 4. mailakoak Baratzera joan dira urria hasieran, hango baserri- eskolara, eta 5. eta 6. mailakoak Arotz Enean izan dira. Bestalde, 1., 3. eta 5. mailakoak Baikarak antolatzen dituen tailerrak izango dituzte urria amaieran: jolasean elkar ezagutzen dugu, jolasean erronkei aurre egiten diegu eta jolasean taldea dinamizatzen dugu. Horrez gain, 6. mailakoak Portaleko liburutegira joango dira bertako funtzionamendua ezagutzera.

# ETXeko artista

## Apaindutako edalontziak

### Materiala:

- Hainbat koloretako esmalte akrilikoa
- Kristalezko edalontziak
- Kotoizko bastoitxoak
- Laberako pergamino-papera


### Pausoak:

- 1.- Edalontziak apaintzeko erabiliko ditugun koloreak prestatu. Kolore ezberdinak nahastuz, kolore berriak aterako zaizkigu.
- 2.- Pergamino-paperaren gainean jarri edalontziak buruz behera. Bastoitxoak esmaltean busti eta edalontziaren ipurdi-aldea margotu, zuek nahi duzuen koloreak eta nahasketak erabiliz.
- 3.- Behin amaituta, utzi sikatzen eta beste edalontzi bat apaintzen hasi. Ordubetez utziko ditugu lehortzen. Gero, labean sartu, 350 gradutan, ordu erdiz. Labea itzali eta utzi hozten beste ordubetez.
- 4.- Eta listo!, zuen edalontzien apaingarriak gehiago iraun dezan, garbitzerakoan ez igurtzi larregi.

**Ti-ta!**

## Dinosauro-arrautza

Dinosauro baten plastikozko figuratxoa aukeratu (beste animaliaren bat ere izan daiteke). Aho zabaleko puxika urez bete, arrautza itxura eman arte, eta sartu animalia. Lotu puxika eta hozkailuan sartu. Ura izoztu denean zuritu puxika eta hara!, dinosauro-arrautza!



# ETXEKO SUKALDARIA

## Espageti-tortilla



### OSAGAIAK

- ✓ 50 g espageti
- ✓ 4 arrautza
- ✓ Xerra 1 York-urdaiazpiko (100 bat gramo)
- ✓ 100 g gazta birrindu
- ✓ Tipulina
- ✓ Gatza

### PAUSOAK

- 1.- Espagetiak egosi. Bitartean, moztu urdaiazpikoa dadotxoetan eta nahastu gazta eta arrautzekin. Gatz apur bat bota eta ongi irabiatu.
- 2.- Espagetiak egosi direnean, xukatu ondo eta ur hotzetik pasatu.
- 3.- Gurina urtu zartaginean eta gehitu arrautzarekin egindako nahasketa eta espagetiak. Zartagina tapaz estali.
- 4.- 10 minutu itxaron tortillaren beheko aldea egin arte. Kontu handiz ertzak bereizi eta atera tortilla plater handi batera. Tipulina pixkat bota dezakezue tortillaren gainean.  
Oso gozoa dago ogitartean edo ogi txigortuarekin.



# URRIKO agenda

URRIAREN  
16TIK  
AZAROAREN  
10ERA

San Andres Bertso-paper  
Lehiaketako lanak entregatzeko  
epea

18  
zapatua

Perretxikoen bila

Goizean, Eibarko ikastetxeetako ikasle eta gurasoak perretxikoak biltzera irtengo dira. Jasotakoak Klub Deportibora eramango dira. Arratsaldean, 18.00etatik 20.00etara perretxiko-pintxoien dastaketa (Hirurok, Kultu, Ongi Etorri, Lanus, Ez Dok, Depor).

25  
zapatua

Zapatuko ipuina  
Nola dastau ilargia eta beste ipuin batzuk (Oihana Etxegibel). 3 urtetik aurrera.  
50-60 min.  
18.00etan umeen liburutegian

19  
domeka

Perretxikoen erakusketa

Goizetik eguerdira jasotako perretxikoen erakusketa Toribio Etxebarrian.

17TIK  
26RA

Eibarko liburu eta diska azoka  
Untzaga plazan

17  
barixakua

Barixakuak Jolasian  
eskulan-tailerra,  
Gurasoak Berbetan egitasmoko ume eta gurasoentzat. 17.30etan ... eta kitto!-n.

25  
zapatua

II. Asier Cuevas Herri Lasterketa

7,5 kilometroko proba, denontzat irekia eta herriko kaleetatik. Irteera eta helmuga Klub Deportibo azpian. Umeak 17.00etan. Nagusiak 17.30etan.

17TIK  
19RA

XVI. Jardunaldi Mikologikoak

17  
barixakua

Mikologiaren oinarriak eta nozio orokorrak

URRIAREN  
10ETIK  
MAIATZAREN  
29RA ARTE

Haurrentzat Antzerki Tailerra

Zurumuru Antzerki Taldearekin.  
Barixakuetan. 17.00etatik 18.00etara.  
Arrate Kultur Elkartean.

## ARIES

Datozen asteotan 7 zenbakiak zortea ekarriko dizu, eta zure kolorea gorria izango da. Katarroa harrapatzeko arriskua izango duzunez, ez zaitez hoztu.

## TAURUS

Izarrek esaten didate petral xamar zabiltzala azken aldian. Inguruokoak aspertu aurretik, aldatu zure jarrera. Zorteko zenbakia 3 eta kolorea horia.

## GEMINIS

Datozen asteotan lagunen baten ezustekoa jaso dezakezu. Ibili zaitez adi, espero ez duzunean sorpresa polita jaso dezakezu-eta. Zaindu eztarria.

## CANCER

Txoropitoarena egitea ondo dago, baina etengabe, egunero, orduero... Gauza guztiek dute beren tarte, eta serio egoteko uneak ere hor daude.

## LEO

Bada ordua jakiteko, hitzek, askotan, min handia egiten dutela. Kontuz esaten duzunarekin, norbait mindu dezakezu-eta. Lagunak zaindu, ez iraindu!

## VIRGO

Kirolari fina eginda zaude. Kanean ere beti korrika. Pentsatu duzu etorkizunean Joko Olinpikoetan parte hartzea? Ez zenuke gaizki egingo!

## LIBRA

Batzuetan aspergarriak badira ere, nagusiek kontatzen dizkizuten istorioak baliagarriak izan daitezke etorkizunerako. Asko ikas dezakezu.

## SCORPIUS

Baina, zer duzu buru horretan? Erdi tontotuta zabilta, burua beste nonbaiten... Maiteminduta, akaso? Hori ematen du behintzat. Kontatu, kontatu...

## SAGITARIUS

Erlojuari begiratzen diozu? Ezetz ematen du, beti ailegaten zara berandu leku guztietara. Besteengan pentsatu pixkat gehiago.

## CAPRICORNIUS

Den-dena ezin duzu lortu. Ez al zaude konforme daukazun guztiarekin? Gehiago baloratu behar harko zenuke daukazuna, ez da gutxi-eta.

## ACUARIUS

Urria hilabete polita izango da zuentzat. 6 zenbakiak zortea emango dizu, eta baita kolore larriak ere. Baina kontuz etxeko lanekin, ez erlaxatu.


## PISCIS

Besteak iritzi desberdina badauka ere, errespetua da garrantzitsua. Ulertu behar duzu denok ez dugula berdin pentsatzen. 3 zenbakiak zortea ekarriko dizu.



## IZEKO ELI ETA BIOK

Izeko Eli Aneren izekorik kuttunena da, maitagarria, bromazalea eta bidaiazale porrokatua. Bidaia horietako batean, Obaba-Ibibi-Bobo buruzagi massaia zuhaixka-hazi misteriotsu batzuk oparitu zizkion izeko Eliri. Herrira bueltan, izeko Elik Aneri utzi zizkion zaintzeko, berak beste bidaia bat egin behar baitzuen. Eta hara non, behin batean, gauza miresgarria gertatu zen...



## HANDIA NAIZ

Igor serio antzean dabil ama haurdun dagoenez geroztik. "Haur ninia ematen duzu" esan dio aitak halako batean.

Igorrek erantzun dio bera ez dela ninia, baizik handia; ninia amaren tripa barruan dagoena dela.



## BASAMORTUKO KONTALARIA

Amira basamortuan bizi da, eta gehien gustatzen zaiona adiskideei istorioak kontatzea da. Baina egun batean, gerren eta gosearen erruz, ez zaio bere istorioak entzungo dituenik geratzen.




## TXAN FANTASMA

Txanek ez zuen fantasma petral haiekin bizi nahi. Hurrekin jolastea gustatzen zitzaion, eta ez haurrak beldurtzea. Horregatik pentsatu zuen taldetik alde egitea. Han eta hemen bakar-bakarrik ibili ondoren, egun batean, Karmentxuren logelan sartu zen leiho zirrikitutik.



## PIRATA ESKOLA: BIZARGORRI PIRATA BELDURGARRIA

Eskola osoan anabasa da nagusi: Argento Bizi zuzendaria bueltan dator Marmoken Itsaslabarrera, haren etsai nagusia, Bizargorri pirata beldurgarria, preso hartu baitu. Baina eskola batean daudela, Itsaskumeek kanoi bat bolboraz kargatu eta...



## ZIZILI

Zizili andreak ez du ezer ikusten, 207 dioptria daukaz begi bakoitzean. Munduko betaurreko guztiak probatuta dauzka, baina alferrik. Hala ere, esan diote Londresen badela jostun bat, apurtutako artaziekin betaurreko berezi batzuk egiten dituen, eta hara joatea erabaki du.

# bitxikeriak



Kamaleoiaren mihiaren luzerak bere gorputzarena bikoizten du.



Ordenagailuaren teklatuan komunean baino baktería asko gehiago dago.



Jaioberri batek heldu batek baino hezur gehiago ditu. Jaioberriek, hezur batzuk, bereizita dituztelako gertatzen da hori.

Kafea da munduan gehien edaten den bigarren edaria, uraren atzetik.

Japoniako ospitaleetan ez dira 4. eta 9. pisurik existitzen. Zenbaki horiek, Japonian, zorte txarrekoak direla diote.

Lagun artean egoteak eta mugikorraren erruz lagunak baztertuta uzteak izena dauka: phubbing.

Hegaztiak nahiago dute kolore gorriko kotxeen gainean kaka egitea, beste edozein koloretako kotxeen gainean baino.

Koalek egunean 20 ordu egiten dute lo.

Munduan bizitza luzeena duen bonbilla Kaliforniako suhiltzaileen egoitza batean dago. 113 urte daramatza piztuta!

Japonian propina uztea edukazio txarrekoa da.

Amarauna altzairua bezain erresistentea izan daiteke. Lodiagoa izanez gero, hegazkin baten pisua jasango luke.

## INTZAREN ISTORIOA

**B**azen behin, Euskal Herriko herri batean, 12 urteko neskatila bat. Begiak berdexka zituen, itsasoaren kolorekoak eta ilea gaztain kolorekoa. Ez zen oso altua, ezta argalegia ere. Neskatila honek Intza zuen izena. Denok bezala, Intza egunero ikastolara joaten zen. Lagun asko zituen, ume ona, alai eta zoriontsua zelako. Gaizki jateagatik gertatu zitzaiona kontatuko dizuet.



Intzak litxarreriak besterik ez zituen jaten eta poliki-poliki bere gorputza loditzen hasi zen. Gehiegi ez zuen jaten, baina jaten zuena ez zen oso osasuntsua. Barazkiak eta frutak ez zitzaizkion gustatzen. Jantokian jartzen zizkieten janariak platerean uzten zituen, baina hamarretakoan eta meriendan beti gustoko gauzak zituen: palmerak, gailetak, goxokiak, pasteltxoak...

Loditzen hasi zen eta lagunak adar joka hasi ziren. Adiskideak ez ziren konturatzen min handia egiten ziotela. Bazuen bere ondoan beti zegoen benetako lagun bat, eta inori kasurik ez egiteko esaten zion, baina ez zen erraza egunero esaten zizkieten irainak entzutea. Adar jotze guzti horiek janaria uztea egin zioten. Jateko guztia utzi zuen, baita litxarreriak ere. Horrela, egunero jan gabe, argaltzen hasi zen.

Goizero, ikastolara joan aurretik, ispiluan begiratzen zen, eta gero eta argalago egon arren, bera lodi ikusten zen eta ezer jan gabe jarraitzen zuen. Bere gurasoak kezkatzen hasi ziren Intza hartzen ari zen itxurarengatik. Oso argala zegoen eta askotan gaixotzen zen. Gainera ez zen lehen bezain alai eta zoriontsua. Neskatila triste bat bihurtu zen. Gurasoek medikura eraman zuten. Medikuek oso ahula zegoela esan zioten eta arazoa ez zela ez jatea bakarrik, lodia ikusten zela baizik. Laguntza handia

beharko zuela guztiz sendatzeko. Oso gaztea zen hain ahul egoteko.

Intzak, denboraldi batean, ikasketak utzi behar izan zituen. Amak lana utzi behar izan zuen berarekin egoteko eta aitak gau eta egun lan egiten zuen dirua lortu eta Intza mediku onenetara eraman ahal izateko.

Mediku askok hitz egin zuten umearekin, lodia ez zegoela konturatzeko eta gainera nola jan behar zuen erakutsi zioten. Denetik jan behar zela ikasi zuen, nahiz eta ez gustatu, osasuntsu egon ahal izateko.

Hilabete batzuk pasatu ondoren, Intza ikastolara bueltatu zen. Lagunek barkamena eskatu zioten eta egietako Intza bihurtu zen berriro, zoriontsua eta alai. Bere platera beti uzten zuen garbia eta litxarreriak ez zituen probatzen. Nagusitu zenean Intzak nutrizio ikasketak egin zituen eta denei erakutsi zien nola jan behar zuten osasuntsu egoteko.



Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.  
**MEREZI DU...**

Jone Acuña, 6. maila

# HARTZA



**zu margolari!**



